2006-X-20
Número **197.** zenbakia

ELA

astekaria

# EDITORIALA

## Ganorazko elkarrizketa

**Ahoz aho dabil partehartze instituzional eta elkarrizketa sozialerako EAEn sortutako erakundeen krisia. Zertan datza, baina, krisi hori? Hedabideetan dabilenari kasu egiten badiogu, arazoa erakunde hauen arautegian egongo litzateke, arautegiok sindikatu abertzaleei eta, bereziki, ELAri, beto eskubidea (gezur borobila!) emango bailiokete. Arautegia aldatzea litzateke, hortaz, krisia gainditzeko bidea, eta badirudi bide hori saiatzen hasiak direla.**

**ELAren ustez, berriz, erakunde hauen arazoaz benetan hitz egin nahi baldin bada, arautegien inguruko sasi-eztabaidak alde batera utzi eta mamiari, hau da, erakundeon eginkizunari buruzko eztabaidari heldu behar zaio. Zer espero du, edota zer eskatzen die bakoitzak elkarrizketarako batzorde eta organoei?**

**Gobernuarentzat, elkarrizketa sozialerako organoek aldian aldiko gobernuaren jarduna babesteko balio beharko lukete. Hori da Espainian eta, geurean, Nafarroan, ikusten dutena, eta horren inbidia gorrian dira.**

**Confebask-ek elkarrizketa sozialetik langileen aldarrikapenak kontrolpean jarriko dituzten itunak espero ditu. Sindikatu espainolek, berriz, protagonismoa, hainbat "gai sozialen" kudeaketa eta elkarrizketa sozialaren ingurutik iristen den diru iturri oparoa.**

**Sindikatu abertzaleok -ELA eta LAB bat baikatoz gai honetan- elkarrizketa sozialari benetakoa izan dadila eskatzen diogu, batez ere. Benetako arazoei hel diezaiela. Lan baldintzen narriadura eta ondasunen banaketaz aritu dadila. Gizarte eredua eztabaida dezala. Lan-osasun eta segurtasunaren gaiari errotik hel diezaiola.**

**Tamalez, ez patronala, ezta gobernua ere ez daude ezteibaidarako horietarako. Horiena bai dela benetako beto borobila! Sindikatu espainolek, bere aldetik, beste 16 autonomietako neba-arrebek duten narotasun gozoa noiz eskuratuko irrikan. Paradoxa bada ere, elkarrizketa eta akordio soziala hitzetik hortzera darabiltenak dira ganorazko elkarrizketarik nahi ez dutenak. Elkarrizketaren etsaitzat jartzen gaituztenok gara, aldiz, elkarrizketa sozialak dituen defendatzaile bakarrak.**




# ELA denuncia que Azkarraga cuestione las mayorías democráticas

# RESPETO A LAS MAYORÍAS

**R**ecientemente el Consejero de Trabajo, Sr. Azkarraga, compareció para dar su opinión sobre algunas decisiones de ELA y para valorar la situación de los órganos de participación institucional. Al Consejero le han parecido "insuficientes" las razones manifestadas por ELA para suspender indefinidamente su presencia en el CRL. Sobre ese mismo tema, la misma persona, hablaba del "respeto a la autonomía de la voluntad de las partes". Desde luego, en función de un juicio tan frívolo no vemos por dónde el Sr. Consejero respeta nuestra autonomía.

En este contexto el Consejero ha situado el problema de la tan traída y llevada falta de acuerdos en los órganos (CRL, CES, Hobetuz, etc...) en las "reglas de juego" que existen en los mismos. A la vez que dice eso nos hemos enterado que el Gobierno ha instado la creación de una Comisión Parlamentaria para abordar "ese problema".

El Consejero, y también otros, saben perfectamente que el problema no estriba en las reglas de juego salvo que lo que pretendan sea cargarse las reglas de funcionamiento democrático: el que los acuerdos se tomen por mayoría de cada parte. El problema está donde estaba: en la negativa de la patronal a abordar los problemas que de verdad sufren los trabajadores mientras acumulan beneficios y en un Gobierno –el de la CAPV- que tiene la tentación de recurrir a eso que en España llaman "diálogo social" y que está vacío absolutamente de contenidos.

***Azkarragak gehiengo demokratikoen errespetua auzitan jarri izana salatzen du ELAk***



# CARTA ABIERTA AL SEÑOR AZKARRAGA

**Me parecen muy graves, señor Consejero, sus declaraciones sobre la necesidad de modificar las reglas para la toma de acuerdos en los organismos socio-laborales y la disposición del Gobierno de tomar decisiones en tal sentido.**

**Deduzco de sus palabras que el Gobierno atribuye la escasa productividad de estos órganos a la forma de adopción de acuerdos en el lado sindical. Sería, por tanto, un problema funcional que habría de resolverse mediante fórmulas técnicas más hábiles que las actuales.**

**Discrepo de usted, señor Consejero, en dos puntos que me parecen fundamentales. En primer lugar, creo que la falta de diálogo y acuerdos obedece a cuestiones de fondo y no a problemas reglamentarios. El problema, en mi opinión, es que Confebask ha decidido excluir de la agenda de diálogo el debate sobre unas condiciones de trabajo cada vez más precarias, para cada vez más gente. El veto patronal al desarrollo de la Mesa de Empleo en el Consejo de Relaciones Laborales fijó los límites del diálogo social al que Confebask está dispuesta. Ahora bien, ¿cree usted, señor Consejero, que en un contexto de grandes beneficios, como el que disfrutan las empresas, un sindicato decente puede escenificar un diálogo que excluya hablar de mejores empleos y mejores salarios?**

**La segunda discrepancia tiene que ver con el cuestionamiento de la regla de la mayoría que sugieren sus declaraciones. Se trataría, he entendido, de encontrar la forma de dar curso a decisiones y acuerdos que no cuenten sino con un respaldo sindical minoritario, extendiendo de esta forma a los órganos sociolaborales una práctica que Confebask y el Gobierno del que usted forma parte han instaurado en la negociación colectiva. Se trataría, en definitiva, de sustituir la regla democrática de la mayoría por fórmulas en las que patronal, gobierno, o ambos, escenificaran con la minoría sindical acuerdos que mostraran que, por fin, tenemos concertación social en la CAPV.**

**Espero, señor Consejero, que sean ustedes conscientes de la gravedad antidemocrática de un paso de esta naturaleza.**

**Adolfo Muñoz, Txiki**
**Secretario de Negociación Colectiva de ELA**

Elkarrizketa Entrevista

## Eustakio Uranga, responsable de Formación, ante el incierto futuro de la Fundación vasca para la Formación Continua

# "CONFEBASK CONDUCE A HOBETUZ A LA LIQUIDACIÓN"



**El pasado 2 de octubre ELA hizo pública la ruptura de relaciones institucionales con la patronal vizcaína, CEBEK, y suspendió su participación en el Consejo de Relaciones Laborales, órgano de encuentro laboral. Apenas 10 días después, ELA y LAB dieron una rueda de prensa para anunciar su dimisión de la presidencia de Hobetuz, la Fundación Vasca para la formación continua. Eustakio Uranga, responsable de Formación, explica lo sucedido y advierte que la patronal está crecida.**

**-ELA y LAB han anunciado en rueda de prensa su decisión de dimitir de la presidencia de Hobetuz por la situación de liquidación de este organismo provocada por Confebask. ¿Qué está pasando en la Fundación Vasca para la Formación Contínua?**

-Hobetuz ha quedado en situación de liquidación como consecuencia de la decisión de Confebask de impedir que la estructura técnica de esta fundación intervenga en la gestión de las órdenes del Gobierno de Gasteiz en materia de formación continua.

Confebask sigue oponiéndose a que Hobetuz promueva actividades de formación descatalogada impartidas por los centros de formación profesional homologados, sobre la que actualmente campa a sus anchas.

Dejar sin actividad a Hobetuz significa, en la práctica, ocasionar su cierre.

**-¿Qué razones alega para esta negativa?**

-La razón es bien sencilla: defiende el negocio e intereses corporativos y particulares de quienes han hecho de la formación continua su negocio, frente a las necesidades formativas de las empresas vascas.

En el año 2006, a través de los contratos programa con el estado, pueden llegar a gestionar hasta 10 millones de euros (otro tanto, entre UGT y CCOO). Se ha confirmado, por si quedara alguna duda, que Confebask no tiene ningún interés en el desarrollo de Hobetuz, ni en que se pongan los medios para garantizar una formación continua de calidad. Su interés está en el manejo de dinero público, cuanto más, y menos controlado, mejor.

**-¿La posibilidad por la que ha luchado ELA siempre de un modelo propio de formación contínua se va al traste?**

-Está en peligro. La actuación de Confebask hace imposible el funcionamiento tripartito de la fundación, e impide el desarrollo de un modelo propio de formación continua en los términos recogidos en el Acuerdo Interprofesional, origen de Hobetuz, firmado también por esta organización en el año 95.

ELA sigue apostando, sin embargo, por un modelo propio de formación continua, integral y de calidad, que dé respuesta a las necesidades del tejido productivo y de los trabajadores y trabajadoras.

**-Hobetuz es un órgano tripartito. La postura de la patronal y de la mayoría sindical está claramente enfrentada. ¿Qué hay del Gobierno Vasco?**

-El Gobierno de Gasteiz tiene que asumir su responsabilidad, sin plegarse de ninguna manera al chantaje de la patronal. Entendemos que el liderazgo del Gobierno es imprescindible y, de hecho, en su tejado está en estos momentos el futuro de la formación contínua vasca.

**-Finalmente, con esta patronal, ¿es posible el diálogo social?**

-Patronal y administraciones vascas han tenido mala suerte: les ha tocado lidiar con un sindicato reivindicativo y no de mero acompañamiento. ELA es firme partidaria del diálogo social, pero de un diálogo social con contenidos, y en estos momentos, al menos con esta patronal, es imposible.

***"Patronalak Hobetuzi jarri dion betoaren atzean prestakuntzan dituen negozioak babesteko asmoa dago"***

***"Patronalak 10 milioi euro kudeatuko ditu aurten Espainiako gobernuarekin sinatutako programa-kontratuei esker"***

Egunean Al día

# MUJERES POR LA IGUALDAD

## Reunión de la Coordinación europea de la Marcha Mundial de las Mujeres




***Urriaren 20an Emakumeen Mundu Martxako Europako koordinazio bilera hasi zen Irunen***

El pasado fin de semana se celebró la coordinación europea de la Marcha Mundial de las Mujeres en Irún. La reunión fue muy especial, pues es la primera vez que la coordinación europea se reúne en Euskal Herria. Durante tres intensos días mujeres de distintas partes de Europa debatieron sobre las distintas problemáticas que afectan a la población femenina. Los temas prioritarios de este encuentro fueron la violencia contra las mujeres, la pobreza y la precariedad. Además, uno de los puntos fuertes de estas jornadas fue el debate sobre el futuro de la Coordinación Europea.

Cada coordinación nacional expuso las realidades de su país y se eligieron a las representantes europeas para el Comité Internacional. Participaron mujeres de las plataformas de Galicia, Castilla, Cataluña, Portugal, Italia, Suiza, Francia y Euskal Herria y asistió también una delegación brasileña .

ELA también estuvo presente en esta reunión, ya que participaron en la misma las responsables del área de políticas de género, Alazne Alonso e Itziar Gabikagogeaskoa. En la Reunión se destacó el trabajo de las mujeres de Hondarribia e Irún en su lucha por la no discriminación en los alardes. Este tema tuvo una gran repercusión durante las distintas reuniones.

Las representantes de ELA valoraron positivamente estas jornadas. "Esta transferencia de información y herramientas de trabajo nos ayudará a consolidar nuestra identidad y nuestras acciones para cambiar la vida de las mujeres y cambiar el mundo".

Egunean Al Día

## ELAk Nafarroako gizarte-zerbitzuen lege proiektua kritikatu du

# EZ DAKAR INOLAKO HOBEKUNTZARIK



**ELAk Nafarroako Gobernuak gizarte-zerbitzuei buruz aurkeztutako lege-proiektuaren balorazio aurkeztu zuen urriaren 1Oan Iruñean. Aurkezpenean Nafarroako koordinatzaile Mitxel Lakuntza eta azterketa bulegoko arduradun Julene Gabiola eta Mikel Noval izan ziren. ELAren ustez, Administrazioek ez diete erantzuten menpeko pertsona gehienen beharrei.**

Nafarroan, 6 urte baino gehiago dituzten 40.376 menpeko daude, biztanleriaren %7,9, alegia. Txostenak jasotzen duenez, "Administrazioek ez diete erantzuten menpeko pertsona gehienen beharrei. Gaur egun, gizarte-zerbitzuei buruzko legeriak ez die laguntza bermatzen behar duten pertsonei".

Nafarroako Gobernuak gizarte-zerbitzuei buruz onartu duen lege-proiektuak gizarte-zerbitzuen antolamendua ezartzen du, baina ez die herritarren premiei erantzuten; izan ere ez du benetako eskubiderik bermatzen. Hori da Mikel Novalen ustez hain zuzen ere gizarte-zerbitzuen oraingo sistemaren hutsune nagusia. "Legeak ez diela menpeko pertsonei ezelako eskubiderik bermatzen. Nafarroako Gobernuak aurkeztutako legea onartuz gero, bere horretan geratuko da egoera aurrerantzean ere. Eskubideak definitu beharreko zerbitzuen-kartan jaso beharko litzateke, eta gero gobernuak onartuko beharko du urtebeteko epean".

### Ez da unibertsala

Proiektuak ez duela estaldura unibertsalik eskaintzen eta, gainera, Europako Erkidegotik kanpoko etorkinekiko bereizkeriaz jokatzen duela azpimarratzen du Novalek. "Zerbitzuen unibertsaltasuna printzipioaren aipamen hutsean geratzen da, berez, menpeko pertsonek, zerbitzua hartu ahal izateko, lege-proiektuan zehazten ez diren baldintza gehigarri batzuk bete beharko dituzte eta. Kanpoan uzten ditu Europako Erkidegotik kanpoko pertsonak; kolektibo zehatz batzuetakoak baldin dira edo larritasun, estutasun eta luzaezintasun zehaztugabearen arabera bakarrik egingo zaie arreta. Era berean, Europako Erkidegoko pertsonei eta erbesteratu, errefuxiatu zein herrigabeei irispidea mugatzeko aukera ere ezartzen da".

Hori ez da lege-egitasmoari egiten dion kritika bakarra. "Ez du estaldura publikorik bermatzen, eta zerbitzuak ordaindu beharra ezartzen du. Zerbitzuen prestazioa bide pribatuaren bitartez egiteko aukera arautzen du testuak, eta ez du kalitateko gizarte-zerbitzu publikorik bermatzen. Horrek Nafarroako Gobernuaren jardunbidea sendetsi besterik ez du egiten, gobernu horren politikak zerbitzuok sare pribatuaren bitartez eman daitezen sustatzen baitu. Pribatizatzeko eta arlo pribatua subentzionatzeko joera nabaria duen politika horrek isla argia du aurrekontuetan, batez ere gizarte- eta osasun-laguntzaren atalari dagokionez".

Azkenik pobreziaren aurkako borrokan aurrerapausorik ez dakarrela azpimarratzen du Novalek. "Oinarrizko errentari edo gizarte-larrialdietarako prestazioei buruzko aipamenetan ez da oraingo estalduren inolako hobekuntzarik ageri, biztanleriaren zati handi bat pobreziaren atariaren azpian utziz".

> *"El proyecto de ley de servicios sociales del Gobierno de Navarra no garantiza la atención en caso de necesidad"*

Hitzaldia

## Manu-Robles Arangiz Fundazioak Iparraldean hitzaldien sasoia
## Susan George militante famatuarekin molde ezin hobean jarraitu du

# BESTE EUROPA BAT POSIBLE DA




> *Susan George calificó el NO francés al tratado de la Constitución Europea como una gran noticia*

**Susan George mundializazio neoliberalaz aditua da. Jatorriz estatu batuarra bada duela urte asko Frantzian bizi da. Egun TNI (www.tni.org), Iparraldea eta Hegoaldearen arteko harremanetaz arduratzen den instituaren administrazio batzordeko lehendakaria da eta Frantziako ATTAC-eko pertsona garrantzitsu bat ere.**

Urriaren 17an Baionan, 60 pertsonatik goitiren aurrean, molde argi bezain interesantean Europaren egoera, mundu mailako komertzioa eta militante bizia aipatu ditu.

Hitzaldia hasi du baieztatuz Frantses Estatuko herritarrek EZ-a bozkatzea berri ona izan zela. Itun Konstituzionala gelditzea molde bakarra zen herritarren eta elkartasunaren Europa oraindik posible izaiteko. Susan George-en aburuz Europako herrien gobernuek beren herrietan eta herrien artean eztabaida bat sortu behar dute denek partekatzen dituzten kezkei buruz (lana, etab.). Ondorioz batzar konstituziogileen bozkatzea antolatua izan behar litzateke Europako herri guzietan ber egunean. (1)

Bestalde, eren munduko herrien zorraren ezabatzeko Susan Georgek bide errealista bezain baliagarria aurkeztu du. Herri aberatsek behar dute zorren ezeztatzeko erabakia hartu guttienezko baldintza batzu galdeginez zordunei. Eren munduko herriek hauteskundeak antolatu beharko dituzte ordezkari batzuk hautatzeko eta zorren ezabatzearen ondorioz zer egina izanen den herrian gelditukо den diruarekin erabakitzeko. Tanzaniaren kasuan gertatu den adibide interesgarri bat aurkeztua izan da. Herri hortan zorraren ordaintzeko erabiltzen zen dirua haurren ikasketak urririk atxikitzeko erabilia izan da. Ondorioz Tanzanian nesken presentzia ikasketa guneetan haunditu da.

Azkenik, hiru hamarkadaz baino gehiagoz militante izan denak bere baikortasuna erakutsi du. Duela hogoi urte, neoliberalismoa naturaltasunez onartua zen, ezin bestean. Gaur egun gero eta gehiago jendek eta haietan gazte askok argi dute neoliberalismoa ez dela fatalismo bat. Horrezgain, Susan George-ek onartu du garai hauetan zaila dela iritzi baten ukaitea: asko informatu behar da eta. Hala ere historian zehar irabazi diren eskubide guziak (segurtasun soziala, lan orduen ttipitzea, etab.) guda luze eta gogor batzuren ondorioz lortuak izan dira... Horrek esperantza emaiten dio gaur egungo borrokei!

Hitzaldia bururatzeko mementoan ingurumenari egiten zaizkion sarraskiek ezezkor uzten dutela aitortu du: jendarteak ezin du lurra amai ezina balitz bezala jarraitu.

**(1)** *Europaren gaiari buruz, entzule batek azpimarratu du Europako herrietan gobernu baten politikarekin ados ez direlarik herritarrek, hauteskundeen bidez aldaketak lortzen dituztela... Tamalez, herritarrak Europar politikarekin ados ez delarik aldaketa posibilitateak oso ttipiak dira eta sistema anti-demokratikoa da. Georgen adostasuna lortu du Europar sistemaren eraikuntza anti-demokratikoari buruzko oharrak.*

**XABIER HARLOUCHET**

## Janire Domingez, lan osasuneko arduraduna

# LAN ISTRIPUAK GORA AZKENALDIAN




**Irailean eta urrian lan istripuak nabarmenki gehitu dira, bereziki azken hilabete honetan. Bi hilabete hauetan 12 lagun zendu dira istripuetan eta hori alde guztietatik begiratuta onartezina da.**

**-Aste honetan entzun dugu Azkarraga sailburuari esanez lan istripuen kopurua jeitsi egin dela.**

-Hori ez da horrela. Berak lehenengo sei hilabeteko datuak erabili zituen eta iraila eta urrian izandakoak ez zituen zenbatu. Gauzak horrela, iaz lan istripu gehiago izan direla esan daiteke eta, dagoenekoz, 69 pertsona hil dira lan istripuetan.

Gure lan merkatuan errotutako arazo baten aurrean gaude, urtero ehunen langilek galtzen dute bizia istripuetan eta hori onartezina da. Administrazioa datuen atzean ezkutatzeari eta arazoari aurre egiteko benetazko neurririk ez hartzeari penagarria deritzogu.

**-Lan istrupu ia denen atzean lege haustea dago. Zein da administrazioaren jarrera hauen aurrean?**

-Lege hausteak gutxi zigortzen dira. Ugazabek inpunitate osoz mugitzen dira, lege hausteen jarraipenik ez baita egiten administrazioaren aldetik. Are gehiago, legea urratzen da, baina horren atzean ez dago zigorrik, ezta neurririk ere.

Honen adibide bat emango dut. Joan zen hilean gazte bat hil zen Durangon. Istripua goizeko ordubietan gertatu zen eta Osalaneko teknikariak goizeko hamaiketan agertu ziren. Nola egingo da jarraipen bat? Hori ez da lan egiteko modua.

**-Iragan astean Osalanek (Osasun eta Lan Segurtasunerako Erakundeak) bilera batera deitu zituen sindikatuak. Zergaitik ez zen ELA agertu bilera honetara?**

-ELA eta LABek batera hartutako erabakia izan zen. Teorian bilera datozen urtetarako Plan Estrategikoa prestatzekoa zen, baina guztiz mediatikoa zen. Bi sindikatuok bitariko bilerak egiten ditugu administrazioarekin gure aportazioak egiteko eta uste dugu hau dela modurik egokiena etekinak ateratzeko. Bestea, sindikatu eta patronalak mahai baten inguruan argazkia ateratzeko besterik ez du balio.

Gainera, neurri eraginkorragoak hartzeko ordua dela eta ezin dela erdizka ibili, uste dugu. Ezin dugu ametitu administrazioak agertu duen utzikeria eta ugazabeekiko eskuzabaltasuna.

> ***"Llevamos doce muertos en accidente laboral desde el primero de septiembre"***
>
> ***"No vamos a admitir políticas mediáticas ante este grave problema"***

## Labur Breves



### ● Mobilizazioak irakaskuntza publikoan

Irakaskuntza publikoko STEE-EILAS, ELA, LAB eta FETE-UGT sindikatuetako 100 bat ordezkarik itxialdi bat burutu zuten, urriaren 18an, Gasteizko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan.

Ikastetxe publikoetan lanean diharduten sektore ezberdinetako langileen hitzarmen kolektiboen negoziazioen inguruan sorturiko gatazkan bilatu behar dira protesta honen arrazoiak, irakasleak, lan-legepeko langile hezitzaileak zein sukalde eta garbiketako langileen lan-baldintzak arautzen dituztenak, jakina.

Administrazioa eta alde sindikalaren arteko bilerak 2003tik ari dira egiten, orain arte gutxieneko adostasunetara ere iritsi gabe. Hau dela eta, joan den ikasturtearen azken hiruhilekoan zehar lau sindikatu hauek negoziazio mahaietatik altxatu eta protesta ekimen batzuk burutu egin zituzten, Hezkuntza Sailaren jarrera erabat itxiaren kontrako presio neurri gisa. Beronen arduradunek ez diete bakarrik alde sozial honentzat funtsezkoak diren gai guztiei ezetza borobila ematen, baizik eta proposamen guztiz atzerakoiak eta, beraz, erabat onartezinak ere aurkeztu egiten dizkie.

### ● Huelga en la justicia

Todos los sindicatos con representación en el sector de la Administración de Justicia del País Vasco han convocado una huelga de cinco jornadas alternas entre el día 24 de octubre y 2 de noviembre para exigir la equiparación de las condiciones laborales con el resto de los trabajadores de la administración autónoma. La equiparación es una reivindicación demandada por el personal de justicia desde hace diez años.

### ● Huelga en composites Gurea

Los 70 trabajadores y trabajadoras de Composites Gurea de Bera iniciaron el pasado 16 de octubre una huelga, en defensa del convenio colectivo. La huelga ha estado precedida de paros intermitentes durante este mes, ante la negativa de la dirección a iniciar negociaciones con el comité de empresa.

### ● Despidos en ITP

La federación del metal de ELA ha denunciado el despido de 25 trabajadores eventuales en la empresa ITA, perteneciente al grupo ITP (Industrias Turbopropulsores) de Zamudio. El despido se produjo tras el anuncio por parte de la dirección de ITP de rescindir el contrato de 180 trabajadores, ante los problemas que atraviesa el proyecto de construcción del Airbus europeo.

ELA pide la retirada del plan de despidos planteado y que se haga una propuesta para el mantenimiento de la totalidad de los puestos de trabajo del mismo, para lo cual debe recuperar la carga de trabajo subcontratada actualmente en ITR, empresa de México del Grupo ITP. También exige que abandone su postura amenazante con los trabajadores y basada en el miedo a la deslocalización con la que nos trata de coaccionar en estos momentos de eliminación de puestos de trabajo.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
www.ela-sindikatua.org

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**